

Funtsezko jarduerak:

Produktua aurrera ataretzeko hainbat jarduera egitea beharrezkoa da, lehenik txanoak eta motxilak enpresa berdinetik lortuko ditugu, ondoren hauek montatze prozesu batera pasako dira non josi egin beharko diren (montatze prozesua gure esku egongo da), honen ondoren marka horri salduko diogu gure produktua eta beraien dendatan saltzen jarriko dira eta bertatik dirua ere jaskoko dugu. Bezeroekin harremana estuagoa izateko, produktuari potentziala ateratzeko... jende edukiko dugu online sortu daitezkeen arazoak konpontzeko, deiak egin eta jasotzen lagunduko digutenak eta hauek bezero ezberdinekin sortuko dituzten harremanak kontrolpean edukitzeko. Arazoak badaude, gurekin kontuan jartzea eskatzen dugu eta hori egin ondoren arazo hori aztertu eta hobetzen sahiatuko gara guk ditugun tresna eta baliabideekin.